

## Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

Enpresa: Seguros Bilbao, Compañía Anónima de Seguros y Reaseguros

**Produktua: Embarcaciones de recreo**

Hemen erregistratua: Espainia. Aseguru-entitatearen baimen-zenbakia: C0026

Aseguru-produktuari dagokion kontratu aurreko nahiz kontratuko informazio osoa beste dokumentu batzuetan dago, hala nola informazio-oharrean, bai eta aseguru-kontratuaren baldintza orokorretan, baldintza partikularretan eta, hala badagokio, baldintza berezietan ere.

**Zertan datza aseguru mota hau?** Nahitaezko erantzukizun zibilaren estalduraren oinarritzko aseguru batean oinarrituta (zeina motor bidezko propulsioko ontzien jabe guztiek kontratatu behar baitute, bai eta, orokorrean, 6 metro baino gehiagoko luzera daukaten ontzien jabeek ere), zure ontziak nahiz hartako bidaiariak jasandako galera edo kalteen ondoriozko kalte-galera ekonomikoak konpentsatzea da aseguru honen helburua, bai eta hirugarrenei eragindako kalte-galera ekonomikoak konpentsatzea ere.



### Zer asegurutzen du?

Kontratugile bakoitzari egokitutako eskaintza bat egiteko aukera ematen du aseguru-produktu honek. Hau da estaldura eta aseguraturako arrisku nagusien laburpena, baldin eta berariaz kontratatzen badira:

- ✓ Nahitaezko erantzukizun zibila, 607/1999 Errege Dekretuaren arabera (336.566,78 €).

**Besteri eragindako kalteen** inguruko beste supostu batzuetara heda daiteke estaldura hori:

- ✓ Borondatezko erantzukizun zibila (muga eta esparru handiagoetara heda daiteke).
- ✓ Aisiako arrantzako erantzukizun zibila.
- ✓ Baratokietako jardueren ondoriozko erantzukizun zibila.

**Norberaren ontziari eragindako kalteetara** heda daiteke (kroskoa, motorrak eta nabigazio-osagarriak), bai eta ontzi osagarriari eragindakoetara ere, estaldura hauen arabera.

- ✓ Erabatekotzat jotako galera edo galera efektiboa.
- ✓ Lapurreta eta lapurreta-saiakuntzen ondoriozko kalteak.
- ✓ Kalte partzialak.
- ✓ Norberaren gauzak.

Era berean, beste **estaldura osagarri** batzuk gehi daitezke, hala nola:

- ✓ Bidaiariei eragiten dieten istripuak.
- ✓ Kalteak murrizteko beharrezkoak diren gastuak eta laguntza-gastuak.
- ✓ Hondakinak kentzeko gastuak.
- ✓ Itsasoko laguntzaren atoi-gastuak.
- ✓ Bidaiarientzako bidaiako laguntza.



### Zer ez du asegurutzen?

**Kanpo geratzen diren arrisku nagusiak:**

- ✗ Kontratugilearen eta/edo Asegurudunaren iruzurra edo erru astuna, bai eta haren mende dauden edo harekin bizi diren pertsonena ere.
- ✗ Erabilera edo higadura normala, berezko akatsak edo kontserbazio akastuna.
- ✗ Erreakzio nuklearrak, erradiazio-kutsadura edo ingurunearekiko erantzukizuna.
- ✗ Gerrak, asaldaketak, hondamendiak, ezbehar nazionalak, etab.
- ✗ Ontzia eragiketa komertzialak edo irabazizko eragiketak gauzatzeko erabiltzean jazotako gertakariak, edo aisiako nabigazioa ez den beste edozer jarduera gauzatzean jazotakoak.
- ✗ Ontzia gidatzen duen pertsona edari alkoholduen, droga toxikoen edo estupefazianteen eraginpean dagoenean jazotako edozer istripu.
- ✗ Pertsona kopuru handiegia garraiatzearen ondorioz jazotako gertakariak.
- ✗ Kontratuko edozer erantzukizun zibil mota.
- ✗ Isunak, zigorrak, tasak, kanonak edo zergak, eta haiek ez ordaintzearen ondorioak.
- ✗ Asegurudunaren nahitako edozer jokabide okerren ondorioz eragindako edo larriagotutako kalteak.
- ✗ Ohiko etxebizitza gisa erabilitako ontzietan jazotako gertakariak.

- ✓ Babesa eta besteri egindako erreklamazioak.
- ✓ Babes juridiko, zibil eta penala.
- ✓ Telefono bidezko laguntza juridikoa.



## Estaldurari dagokionez, murriztapenik dago?

- Aisiako Ontzien Erantzukizun Zibila arautzeko 607/1999 Errege Dekretuaren aplikazio-esparrua Espainiako itsas urak eta barne-ur nabigagarriak dira.
- Istripuen estaldurari dagokionez, bidaiaritzat joko dira dohain ontziratu diren pertsonak.
- Kalteen estalduren kalte-ordainen gehieneko kapitala beti izango da ontziaren balio erreala (merkatuan haren truke ordainduko den balioa), zeina istripuaren unean balioetsiko baita (aseguratutako zenbatekoa izango da muga, baldin eta txikiagoa bada).



## Non izango dut estaldura?

- ✓ Nabigatzean (eta aurkakoa berariaz adostu ezean), aseguruaren estaldura hauetara mugatuko da: Espainiako ur nabigagarriak (barne-urak barne), Mediterraneoko itsasertz europarra, Kantauri Itsasoa eta Ozeano Atlantikoa (penintsulako itsasertzetik 200 miliara arte), eta Kanariar Uharteetarako itsasaldiak.
- ✓ Halaber, estalita egongo dira portuetan izan litezkeen arriskuak, bai eta uretatik kanpoko egonaldiak edo garraioa ere.
- ✓ Era berean, aseguruaren estaldura hedatu egin daiteke, barnean har ditzan tokiko itsasertzean egindako estropada ez-profesioaletan parte hartzea.



## Zer betebeharrak daukat?

- Asegurua kontratatzean benetako informazioa eta zehatza ematea, eta, kontratua indarrean dagoen bitartean, arriskuen inguruko aldaketak ahal bezain laster jakinaraztea.
- Aseguruaren kobrantza-jakinarazpena jaso bezain laster ordaintzea aseguruari.
- Zazpi eguneko epean jakinaraztea aseguratuazileari ezbeharra (hots, estalduraren eskaera baldintzatzen duen gertaera). Ezbeharra hautematen den datatik hasita zenbatuko dira zazpi egun horiek. Estalduraren eskaera baldintzatzen duen gertaeraren inguruabar eta ondorioei buruzko informazio guztia eman beharko da.



## Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzeko unean, eta kontratuan adierazitako ordainketa-metodoaren arabera. Kontratua luzatu egiten bada, berritzearen hasiera-datan. Ordainketa banku-helbideratzearen bidez edo, hala badagokio, kreditu- edo zordunketa-txartel baten bidez egin ahalko da.



## Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

Lehen ordainketa egindakoan hasiko da estaldura, eta kontratuan adierazitako data eta orduan amaituko.



## Nola ezezta dezaket kontratua?

Idatzizko jakinarazpen bat bidalita aseguru-entitateari, indarrean dagoen aseguru-aldia amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez.